


JULIETA, ROMEO ETA SAGUAK

Mariasun Landa

Marrazkiak: Asun Balzola



erein AUSKA 

JULIETA, ROMEO ETA SAGUAK

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Xabier Etxaniz Erle-ri

1. argitalpena: 2021eko otsailan

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Asun Balzola

© Mariasun Landa

© SM Argitaletxea, 1994

© Edizio honena EREIN, Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-593-4

L. G.: D 187/2021

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45

20800 Zarautz

T 943 835 008

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

MARIASUN LANDA

JULIETA, ROMEO
ETA SAGUAK

Marrazkiak: Asun Balzola

erein AUSKAO

idazlea
mariasunlanda

www.mariasunlanda.net



Jakingo banu, esango nizuke
nor naizen.

Batzuetan, Romeo

Besteetan, Julieta.

Jakingo banu, esango nizuke
zer atsegin dudan gehien:
batzuetan irakurtzea eta idaztea,
besteetan tartak egitea eta dantzatzea.

Jakingo banu, esango nizuke
sagu tripazaleak eta amodioa uztartzea
nola bururatu zitzaidan,
baina hobe duzu istorioa irakurtzea.

Baina, gaur, gauza ziur bakarra
hauxe da:
oso ondo pasatu nuela ipuin hau idazten,
barre egiten nuela saguen galderak asmatzen,
eta espero dudala zuk ere
ipuin hau atsegin izatea.

marrazkilaria
asun**balzola**



Marrazketa eta margoketa ikasketak egin zituen. 1967an Italiara joan zen bizitzera. 1976an Espainiara itzuli eta idaztera eta marraztera ematen da osorik. Ingelesez, alemanez, frantsesez eta italieraz hitz egingen eta idazten zuen. Euskal Herriko eta Espainiako argitaletxe gehienentzat egin zituen ilustrazio lanak, bai eta Europa eta Estatu Batuetako zenbaitentzat ere. Haur eta gazteentzako liburuak idatzi zituen. *Txoriburu* izan zen helduentzako lehena. Marrazkiak egin zituen prentsarako (El País, Ahorro aldizkaria, Proyecto Hombre aldizkaria, Telva, Dunia, Mía, etab.) eta publizitaterako (Ogilvy & Mather Direct, Tandem). Diseinu grafikoan ere aritu izan zen (afixak, liburuxkak, egutegiak, txartelak...).

Zer da paradisia?

Tarta jatea eta rocka dantzatzea

Tarta-usain gozo eta epelak erakarri zituen lehenengo saguak Julietaren etxera.

Herrian gelditzen ziren etxe zahar baina dotoreenetako bat zen hura, gurasoek hiltzean Julietari utzi zioten ondasun bakarra. Lehenengo sagu talde goseti hark makina bat estutasun eta larritasun paseak zituen bere bizitza laburrean; beraz, hango galleta-kutsua, hango gazta apurrak eta ogi egin berriaren pusketak paradisikoak iruditu zitzaizkien sagu ibiltari haiei. Eta, esperantzaz beterik, Julietaren sukalde zabaleko zulotxo batean kokatu ziren.

Berehala konturatu ziren beren erabakia ezin hobea izan zela. Julietak, bere burua ederki asko

zaintzen baitzuen, mimo handiz prestatzen zituen bere otorduak, eta, mokofina izateaz gain, gozozale amorratua ere bazen... Pastak, galletak eta bizko-txoak egunero. Astean birritan, tartak. Asteartean txokolatezkoa, ostegunean kremazkoa. Eta, lantzean behin, egun berezietan, gazta-tarta!

Eta saguak zorutzen, oso-oso kontent, gizentzen eta potolotzen; paradisuan zeudela iruditzen zitzaien. Gainera, Julietak supermerkatu batean saltzaile gisa lan egiten zuenez gero, jaki berezi eta eskisitorik ez zuten falta, eta dendako lanorduetan, bederen, nahi adina denbora eta libertatea izaten zuten etxea goitik behera arakatzeko.

Zoriontasunak ongile bihurtzen du jende oro, baita saguak ere, eta, oso pozik bizi zirenez eta eskuzabal eta jatorrak bilakatu zirenez, beren senideei deitzea erabaki zuten:

—Etor zaitezte Julietaren etxera! Ez dakizue zer den hau! Utz itzazue zuen estolda zikinak, sukalde hotz eta modernoak, zabortegi mixerableak! Azkar, azkar! Hau da mauka, hau!

Dei hura berehalaxe hedatu zen herriaren azpialdean, eta sagu kuadrilla polita bildu zen neska jatun finaren etxean; Julietarenean, alegia.



Bapo afaldu ondoren, Julieta egongelara abiatu ohi zen. Musika jarri, eta eskoba zahar batekin dantzatzen zen gauero: balsak, tangoak, rocka, pasodobleak... Bero-bero dantzatu gainera, eskoba nekaberaren iritzirako bederen:

—Ai! Ai! Ai! Zer nolako bueltak eta jirak! Julietak laster akabatuko nau! —kexatzen zen erratza, dantzaldia bukatu eta gero.

Baina saguei bost axola eskoba gaixoaren nekea, zeren dantzaldiak irauten zuen denboran sukaldean barreiatu eta Julietak han utzitako hondar goxo epelak amenjesus batean garbitzen baitzituzten.

Tripatxoak ondo beterik, rock-dantzari ekiten zioten haiek ere, musikarekin digestioa egitea askoz atseginagoa eta osasungarria zela esanaz.

Munduko sagurik zoriontsuenak ziren. Munduko sagurik mimatuenak.

Pribilegiatuenak.

BAINA...

Julieta, ordea, ez zen zoriontsua. Julieta ez zuen inork mimatzen.

Julietak dantzatzeko nahiago zuen gazte guapo bat eskoba zatar bat baino, baina... Ai, hori aurkitzea tarta bat egitea baino askoz zailagoa bide zen!

Bere gerria loditzen joan zen heinean, gero eta lotsa handiagoa ematen zion dantzalekuetara joateak. Iruditzen zitzaion mutilek ez zietela bera bezalako neskei begiratzen, eta, tristeziarengatik edo plazer bakarra sukaldeko lanak ematen ziolako, etxezuloan sartu eta plater goxoak prestatzen hasten zen.

Hau da, Julieta askotan oso bakarrik aurkitzen zen.

Berezia, potoloa eta zoritxarrekoa. Baina Julietaren etxeke saguek ez zekiten hori guztia.

Izan ere, gauza jakina da saguek ez dutela bihotzeko bakardadeaz ezer konprenitzen.

Zer da sagu tontoa izatea?

Katutzarra ondoan egon eta ezer ez usaintzea

Egun batean, auskalo zergatik, Julieta ispiluaren aurrean jarri zen...

Eta denbora asko eman zuen han ikusten zuen neska potoloari begira. Michelin tankera zuen irudi hura luze aztertu ondoren, errietan hasi zitzaion bere buruari, aspaldiko lagun bati zuzentzen zaion modura:

—Noiz arte, Julieta?

—Ez al dun zerbait erabaki behar?

—Ez al dun zoriontsu izan nahi?

Saguek ez zioten gertaera hari inongo garrantzirik eman. Julietak bere buruarekin hitz egitea edota ispiluari errietan egitea normaltzat hartu zu-

ten, eskoba zaharkitu batekin dantzatzea arrunt normala iruditzen zitzaien bezala. Ez zuten susmatu horrek ondorioak ekar zitzakeela, ez zuten antzeman zerbait gerta zekiekeela, zerbait grabea, oso grabea, munduko sagurik pribilegiatuenak sentitzen baitziren, dohatsuak, sagu txatxu guztiak bezala, bizitzaren ezbehar eta larrialdietatik salbu.

Baina hara non, astearte batean, sagu axolagabe haiek harritura geratu ziren txokolatezko tartaren falta sumatu zutenean.

Hurrengo ostegunean ere, ez zuten kremazko tartaren apurrik topatu...

—Hau gauza arraroa, hau! Harrigarria benetan, arranopola! Zerbait pentsatu beharko dugu, bada!

Pentsatzen hasi ziren, baina baita berehala nekatu ere, sabeleko zoriontasunak buruko bonbilla itzali edo moteldu egiten baitu nonbait:

—Bihar jarraituko dugu pentsatzen! —propo-satu zuen batek.

—Bai! Bai! Bihar biharkoa! —beste guztiek.

Musikarik ez entzuteak ere ez zituen harritu sagu zoriontsuak, sukaldean aurkitzen zituzten plater goxo eta jaki onen arrastoez asetzen baitziren



oraindik.

Bapo afaldu ondoren, dantza egin beharrean, lurrean etzan eta kontu-kontari aritzen ziren.

—Hobe musikarik gabe! Horrelaxe ere ondo gaude, zer demontre! Patxada ederrean eta bake santuan!

Handik egun batzuetara, berriz, bizkotxorik, galletarik eta pastarik ez aurkitzeak zer pentsa eman zion sagu bakarren bati:

—Lagunok!... Ez al da arraroa, ez al da kezkatzekoa, ez al da pentsatzekoa aste guztian jateko ezer gozorik ez aurkitzea? Julieta arraro samar dabilkigu!

Sagu guztien belarriak erne jarri ziren.

—Ez al da bitxia afalondoetan musikarik ez entzutea? Ez al da oso gauza arraroa Julietak dantzan egiteari uztea?

Sagu guztien biboteak dardarka hasi ziren.

—Ez al da komenigarria afalondoan Julietak egongelan zer egiten duen jakitea?

Saguek elkarki begiratu zioten, urduri, sagu susmoti hark proposatutakoa beren burutxoetan bueltan zerabiltelarik...

Pentsatu eta egin.

Saguen arteko beteranoena, egongelara abiatu,

eta han izkina batetik ikusitakoaren berri ekarri zuen, korrika batean:

—Lasai, lagunok, lasai! Julieta... irakurtzen ari da!

Eta hura ere normala iruditu zitzaien sagu inuxente eta tontolapiko haiei.

Antza denez, saguek tripa beteta daukatenean ez dute jadanik ezer usaintzen eta sumatzen, ezta buru gainean duten katutzarra bera ere.